

Gerraren ostean, Espainia izugarrizko presondegia bilakatu zen. Kartzelaz beteriko estatu bat. Giltzapetutako populazioa, kartzelek har zezaketena baino hamar aldiz handiago izatera iritsi zen. Presondegi bilakatu zituzten eraikin zibil asko: eskolak, komentuak, biltegiak eta lantegi zaharrak. Ehundaka obra publiko eta pribatu, itxileku bilakatu ziren. Hemen, Irunen, zubi honetan bertan, berrehun preso baino gehiago giltzapetuak izan ziren hiltegi zaharrea. Haien delitua: gobernu errepublikanoaren zilegitasuna defendatzea eta legez kontrako sistema politiko batean satu nahi ez izatea. Ez zen estatua bakarrik kartzelaz bete. Ez ziren kartzelak bakarrik presoak bete. Herriak eta hiriak ere, itxileku bilakatu ziren. Lana bera ere, itxileku bilakatu zen. Milaka preso sartu zituzten autoaldarrikatutako nazio berria, obra publiko eta pribatuetan. Bortxazko lana fenomeno sistematikoa eta orokorra izan zen. Gipuzkoan, enpresa bakar batek, Ferrocarriles y Construcciones ABC, ia mila preso erabili zituen sei zigordestakamentutan. Horietako bat Irungo Zigor-Destakamentua izan zen. Ubide hau eraikitzeko, Espainiako hogeita hamalau probintziatik ekarri zituzten presoak lan egitera. Orain, hirurogeita hamabost urte igaro direla, presondegiko errejimen gordina jasan zuten presoak omentzen ditugu. Sakabanaketaz gain, preso errepublikarren kontura aberastu ziren enpresarien adostasunaz baliatu zen ere bai gobernu frankista. Hirurogeita hamabost urteren ondoren, egia, justizia eta frankismoaren biktima guztientzat erreparazioa aldarrikatzen ditugu. Hogeita hamaseiko altxamendu militarra genozidio gisa eta diktadura frankista estatu-terrorismo gisa deklaratuak izan dadila eskatzen jarraitzen dugu. Erresistentziak bizirik dirau. Gizarte laiko, publiko eta bidezkoaren alde, eta politikaren gehiegikeriaren eta ustelkeriaren aurkako borroka aurrera jarraitzen du. Errepublikaren berrezarpena da etorkizunari aurre egiteko eta iragana aitortzeko berme bakarra. Gaur, ubidea eraiki zuten presoak omentzen ditugu, baina askatasunaren eta berdintasunaren aldeko borroka ospatzen dugu era bai. Gora Errepublika!